

18. ALDIZKARIA - 2010ko otsailaren 9a

ERGOIENA

Etxebizitzak zaharberritzeko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzaren behin betiko onespena

Ergoieneko Udalak, 2009ko azaroaren 26ko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Etxebizitzak zaharberritzeko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzako aldaketa. Iragarki oholean eta 2009ko 158. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 25ean, argitaratzearekin batera jendaurreko epe bat ireki zen. Aldi hori iraganik, ez da erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan ezarritakoa betetzeko, osorik argitaratzen da haren testua.

ERGOIENeko UDALERRIKO ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Xedea.

Ergoieneko udalerrian etxebizitzaren zaharberritzea bultzatzea du xede ordenantza honek, Udalaren zerga batzuetarako diru-laguntzak emanez.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza honen aplikazio esparrua Ergoiengo udal mugapea osatzen duten hiru kontzejuak dira.

3. artikulua. Diru-laguntzak har ditzaketan etxebizitzak.

Ordenantza honen ondorioetarako, etxeetako bizigarritasuna egokitzeko teknikari aditu baten esku hartzea behar duen obrari esaten zaio zaharberritzea, urtarrilaren 16ko 5/2006 Foru Dekretuan eta Ergoiengo udal planeko hirigintza arauetako 2.1 artikuluan zehaztu bezala. Aipatu foru dekretuan martxoaren 22ko 5/2004 Foru Dekretua aldatzen da, Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituen, alegia.

4. artikulua. Onuradunek bete beharreko baldintzak.

a) Zein etxetarako eskatzen den diru-laguntza, hura eskatzailearen ohiko bizitokia izatea edo helburu hori izatea.

b) Eskatzailea udal mugapeko beste etxebizitza baten titularra ez izatea.

c) Familia unitateko kide guztiek (6. artikuluan zehazten baitira) Udalarekin inolako zorrik ez izatea, zergei dagokienez.

d) Familia unitateko kide guztiak udalerrian erroldatuak izatea, edo etxebizitzaren altarekin batera bertan erroldatzea.

e) Zein etxe zaharberritu egin gogo den, eskatzailea haren titularra izatea.

5. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa.

Diru-laguntzen zenbatekoak etxebizitza motaren arabera izanen dira:

a) Etxebizitzarako eraikina zaharberritzea: E.I.O.Z.ren %50.

b) Hamar urte baino gehiago hutsik egin duen eraikina zaharberritzea, hura etxebizitzarako bada: E.I.O.Z.ren % 75.

6. artikulua. Familia unitatearen kontzeptua.

Ordenantza honen ondorioetarako, familia unitatetzat hartuko da higiezin berean bizi eta erroldako orri berean daudenak.

7. artikulua. Eskabideen tramitazioa eta laguntzen kobrantza.

Eskatzaileak bere eskabidea egin beharko du eta proiektu teknikoarekin batera aurkeztu, teknikari eskudun batek sinatu eta ikus-onetsita. Ondotik obra lizentzia emanen zaio, betiere Udal Planari egokitua bada.

8. artikulua. Diru-laguntza behin-behineko onartzeko baldintzak.

Diru-laguntza behin-behinekoz onartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Ordenantza honen bidez diruz laguntzen diren jarduketa guztiek hirigintzako lizentzia izan beharko dute aldez aurretik.
- b) Legeak ezartzen duenetan, higiezina lehen aldiz okupatzeko lizentzia eskuratu beharko da.
- c) Gainerakoetan, idatziz jakinaraziko da obren bukaera. Jakinarazpena hartuta, Udalaren zerbitzu teknikoek ikustaldia eginen dute obrak egiaztatzeko eta txosten bat eginen da, obrak lizentziarekin bat datoze eta ordenantza honetako 3. artikuluan ezarritako ildotik diruz lagundu daitekeen hirigintzako jarduketa dela dioena, hala baldin bada.

9. artikulua. Diru-laguntzaren behin-behineko onarpena.

Aurreko baldintzak beteta, diru-laguntzarako eskubidea eta haren zenbatekoa onartuko dira, alkatearen ebazpen arrazoituaren bidez, 5. artikuluan ezarritako ildotik. Onarpen hori behin-behinekoa izanen da. Behin betiko onarpena eta diru-laguntzen ordainketa urtebetea igaro ondoren etorriko dira, hartan aipatzen diren baldintzak betetakoan.

10. artikulua. Epea.

Diru-laguntzak ordaintzeko epea urtebete izanen da eta honela kontatuko da:

Eskaerak onartzeko lehen erabileraren lizentzia behar bada, hura ematen denetik.

Gainerakoetan, hau da, lehen erabileraren lizentziaren ordean 8. artikuluan aipatzen den bezalako txostena behar baldin bada, epea txosten hori ematen denetik hasiko da kontatzen.

11. artikulua. Agirien aurkezpena.

Diru-laguntza kobratzeko eskubidea izateko, ordenantzaren 10. artikulua aipatzen duen urtebeteko epea igarota, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Familia unitateko kide guztien erroldako ziurtagiria, diru-laguntzarako eskabidea aurkeztu denetik Udal Erroldan etenaldirik gabe egon direla erakusten duena.

Diru-laguntzaren xedeko higiezinaren titularra dela erakusten duen agiria.

Udalaren ziurtagiria, udal mugapean beste etxebizitza baten titularra ez dela erakusten duena.

12. artikulua. Inguruabarren aldaketa.

Diru-laguntza kobratzeko epean familia unitateko kide kopuruan gorabeherarik baldin bada edo beste edozein aldaketa ordenantza honetako 4. artikuluan aipatu diren inguruabarretan, onuradunak haien berri eman beharko du.

13. artikulua. Diru-laguntza bat baino gehiago eskuratzeko debekua.

Titularra ezin izanen da, ordenantza honen ondorioz, diru-laguntzako espediente bat baino gehiagoren onuradun izan, ez titular gisa ez familia unitateko kide gisa.

14. artikulua. Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin.

Ordenantza honetako diru-laguntzak bateragarriak dira beste foru dekretu batzuek arautzen dituztenekin eta, zehazki, etxebizitzak zaharberitzeko laguntzei buruzkoekin.

15. artikulua. Eskualdatzea debekaturik.

Diru-laguntzaren onuradunak etxebizitza eskualdatzen badu diru-laguntza kobratzeko epean, hura gabe geldituko da.

16. artikulua. Egiaztatzeko eta ikertzeko ahalmena.

Diru-laguntza behin betikoz ordaindu arte, laguntzaren onuradun den familia unitateak momentu horretan 4. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen ote dituen aztertuko du Udalak, edota 11. artikuluan eskatutako agirien balioa urteak iragan ahala bere horretan dagoen. Horrela ez bada, ez da ordainduko kobratzeko dagoen diru-laguntza.

17. artikulua. Behin betiko onarpena.

Ekarritako agiriak azterturik eta behar diren egiaztapenak eginik, Udalbatzak behin betiko onartuko du diru-laguntza, eta hura ordaintzeko erabakia hartuko osoko bilkuran.

18. artikulua. Araubide juridikoa.

Ordenantza honen interpretazioaz sor daitezkeen zalantzak Udalbatzak argituko ditu. Ordenantza honetan espresuki arautzen ez den orotan toki araubidearen gaineko legeria aplikatuko da, baita administrazio prozeduraren gainekoa ere toki entitateei aplikatzen ahal zaien neurrian.

XEDAPEN GEHIGARRIA

2006ko martxoaren 30etik aitzina tramitatutako hirigintzako espedienteen titularrak baliatzen ahal dira ordenantza honetako diru-laguntzez, betiere onartuak izateko eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte.

AZKEN XEDAPENA

1. Ordenantza honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.
2. Ordenantza honen indarraldiak ez du mugarik.

Ergoienean, 2010eko urtarrilaren 26an.-Alkatea, Tomás Andueza Elso.

Iragarkiaren kodea: L1001401